



VII. TXIRRITA MENDI IBILALDIA IGANDEAN

Oargi Elkarreak antolatu duen hilaren 23ko mendi martxarako jadanik 300 mendizale inguruk eman dute izena » 3

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2010-05-20**

VIII. URTEA 2.005. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Lizartzako Kultur Astearen baitan Takolo eta bere lagunak izan ziren atzokoan. ESTI EZEIZA

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA KULTURAREN ITZALEAN

KULTURA Iruran, Berrobin eta Lizartzan aurrera doa Kultur Astea; Leitzan, herri kirolariak omenduz jarriko dute martxan igandean »



'Simplemente' filma ikusteko aukera, etzi

TOLOSA Down sindromearen inguruko lan honetan Zaldua tolosarrak hartu du parte » 2



Aralarrek Tecnalia eskualdean nahi du

TOLOSA Iñaki Irazabalbeitiak azaldu duenez eskari hori egingo du Aralarrek Udalean » 3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Laburrak

Pentekosteko gaubeila, etzi, Santa Maria parrokian

ERLIJIOA ● Pentekosteko gaubeila izango da etzi, 20:30etan Tolosako Santa Maria parrokian. Tolosa eta Ibarrako pastoral barrutiko elizkideei bertaratzeko gonbita luzatzen zaie.

Eskolarteko saskibalo finalak Usabalen, etzi

KIROLA ● Eskolarteko saskibalo finalak jokatu dituzte etzi goizean, Usabal kiroldegian. Hain zuzen ere, alebin eta infantil mailakoak izango dira, 10:00etan eta 12:00etan. Taketik azaldu dutenez, «esfortzu handia» egin dute «eskolarteko saskibaloian festa» Tolosara ekartzeko.

Emakundek Edurne Pasaban zoriondu du

GIZARTEA ● Emakunde Emakumearen Euskal erakundeak Edurne Pasaban zoriondu du «Shisha Pang-maigo, eta horrela bere azken zor-tzimilakoa lortzeagatik». Gure gizartearen erroka berriak gaituzten emakumeak izatea oso garrantzitsua dela adierazi du Emakunde, «beste emakume batzuentzako eredu bihurtzen direlako». Halaber, kirola gizarte hau aldatzeko baliabide garrantzitsua dela adierazi du, «emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko».

Sahararren aldeko elkarretaraztea, gaur

GIZARTEA ● Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatutako Maiatza Borrokan jardunaldien barruan, elkarretaraztera deitu dute gaur, 20:00etan, Plaza Zaharrean. Borroka armatuaren hasieraren urteurrena dela eta egingo dute protesta ekitaldia, *Maroko Mendebaldeko Sahararik at, Autodeterminazioa eta Independentzia* lelopean.

'Ajami' filma ikusgai, gaur, Zine Forumean

ZINEMA ● Ostegunero bezala, Zine Forum saioa izango da gaur, Leidor aretoan, 19:15ean eta 21:45ean. Israelgo ghetto baten historia kontatzen duen *Ajami* filma izango da ikusgai.

'Simplemente' filmaren aurre estreinaldia etzi, Leidorren

Zinema ● Down sindromea duten neska-mutilen egunerokoa kontatzen du; Juanma Zaldua tolosarra da zuzendari laguntzailea.



Jon Andueza, Juanma Zaldua eta Juanba Berasategi, atzo, Kultur Etxean. I.T.

INIGO TERRADILLOS

Otsailaren 27an estreinatu zuten *Simplemente* filma Arrasaten. Ondoren, Hego Euskal Herriko hiriburuetan ere izan da ikusgai, eta etzi, Tolosako Leidorren emango dute. Beraz, zinemetako karteldegian ekainean jarri aurretik ikusteko «pribilegioa» izango dugu gurean.

Jon Andueza arrasatearra da film-dokumentalaren zuzendaria, eta horregatik estreinatu zuten Arrasaten. Juanma Zaldua zuzendari laguntzailea tolosarra denez, bertan ere zinema guztietan erakutsi aurretik jarri nahi izan dute. Hain zuzen ere, Andueza eta Zaldua Tolosan izan ziren atzo, filmaren ekoizpenaz arduratu den Juanba Berasategirekin batera. Filmaren berri ematearekin bate-

ra, herritarrek animatu dituzte ikustera joatera, «lan desberdina baita, oso polita, naturala eta bihotzez eginikoa».

Era naturalean kontaturik

Bilbo inguruko Despertar los Sentidos dantza taldea ezagutu zuen duela hiru urte Jon Anduezak. Bertako partaide guztiek down sindromea dute, eta istorio hori kontatu egin behar zela pentsatu zuen. «Filmak era positibo eta na-

turalean neska-mutil hauen egunerokotasuna kontatzen du, dantza ardatz izaniko», azaltzen du zuzendariak. Hain zuzen ere, down sindromea duen araba du berak, eta egoera oso gertutik ezagutzen du.

Juanma Zalduak, bere aldetik, film honetan parte hartzea «oso aberasgarria» izan dela adierazi zuen; «Proiektua ezagutu nuen unetik asko gustatu zitzaidan eta izugarri erakarri ninduen; pozik

» DATUAK

- **Filma.** *Simplemente*.
- **Zuzendaria.** Jon Andueza.
- **Zuzendari laguntzailea.** Juanma Zaldua.
- **Ekoizpen arduraduna.** Juanba Berasategi.
- **Gaia.** Down sindromea duten neska-mutilen osaturiko dantza talde baten bizimodua kontatzen du.
- **Noiz eta non.** Etzi, 19:30ean, Leidor aretoan.

nago Tolosan emango dutelako, eta ni erakarri nauen moduan bertakoak ere erakartzea gustatuko litzaidake».

Harrera «oso ona»

Filmaren ekoizleak Juanba Berasategi azaldu zuenez, «zinemaren osagai guztiak ditu *Simplemente* filmak, barre eta negar eragiten baitu».

Orain arte harrera «oso beroa» izan dute, aurre estreinaldian 5.000 ikusle batu dituztelarik da goeneko, eta «jendeari asko gustatu zaiolako». Tolosako proiektzioaren ostean, ekainean ohiko zinemetan izango da ikusgai, eta ondoren herri txikiak eta ikastetxeetara ere eramateko asmoa dute, «filmak dituen balore hezitzaileengatik».

'Euskarazetamol' antzezlanak, Topic-en

Antzerkia ● Bihar izango da ikusgai, 20:30etik aurrera; Patxo Telleria eta Mikel Martinez dira aktoreak.

ERREDAKZIOA

Ez Dok Hiru antzerkilari bikoteak *Euskarazetamol* lana eskainiko du bihar Topic Txotxongiloen zentroan. Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreek euskara erabiliko dute barre eragiteko tresna bezala.

Dibertimenduak izeneko trilogiaren hirugarren antzezlanak da *Euskarazetamol*, *Euskara sencillaren manifestua* eta *Larru haizetara* lanen ondotik datorrena. Aurre-



Patxo Telleria eta Mikel Martinez dira antzezlaneko aktoreak. HITZA

ko biek arrakasta handia izan dute, eta hirugarrena ere bide beretik doa. Konpainia osatzen duten bi aktoreek, Telleriak eta Martinezek, urteak daramatzate elkarre-

kin antzerkiaren munduan. Trilogia honetan, Jokin Oregiren zuzendaritzapean aritu dira.

Antzezlanak aktoreen bizimodu «bitxia» eramaten du jendear-

» DATUAK

- **Emanaldia.** *Euskarazetamol* antzezlanak.
- **Aktoreak.** Patxo Telleria eta Mikel Martinez.
- **Non eta noiz.** Topic-en, bihar, 20:30ean.
- **Sarrerak.** Topic-eko leihatilan, Servikutxa, Telekutxa edota www.kutxa.net-en. 10 euro.

rera, betiere euskara izanik ardatza. Komedia dibertigarri bat eginenez, jendeari barre eginaraztea dute helburu. «Esketzez betea da, estilo malgukoa, edozein tokitara egokitu daitekeena. Umorea egitea eta publikoarekin zuzenean hitz egitea da kontua», azaltzen dute aktoreek.

TXOKOA

TXOKOA hitza

"80 EGUNEAN filma ikusteko
4 sarrera pare zozkatuko ditugu
gure harpidedun ordaintzaileen artean"

Deitu gaur goizean zozketan parte hartzeko

harpidedunen
TXOKOA hitza

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

«Aralarko gailurretatik martxa bat igarotzen zela zioten orduko helduek»

Mendia » Igandean Txirritaren omenezko VII. Mendi Ibilaldia egingo dute Aralarko 12 tontorretatik barrena.

ASIER IMAZ

Txirrita Mendi Ibilaldia 1968. urtean hasi zen gorpuzten. Sustraiak ordea, zaharragoak ditu. Oargi Elkarteak lehen edizioa 1985. urtean antolatu zuen, «proba bat egiteko asmoz» eta oraindik Txirritaren izenik gabe. Hurrengo urtean, 86an, gaur egungo izenarekin batera bi tontor gehitu zitzaizkion ibilbideari: Truturre eta Ganbo Txiki. Lau urte beranduago Ibilaldian partaideak eraiki zuten 13. tontorra, 565 mendizale ibili baitziren Aralarko gailurretan barrena. Bien bitartean, GPSa ipar orratzaren lekua hartzen joan zen. Igande honetan azenik, Amezketako irteeran 300 lagun baino gehiago elkartzeko dira, 06:00etan, 12 gailur igotzeko prest.

«Gogorregia zelako»

1968. urtean Oargi Elkarteak kide batek bazuen kezka bat: «Orduko helduen esanetan, garai batean Aralarko gailurretatik martxa bat igarotzen zen. Aralarko Adiskideek antolatzen omen zuten, 14 orduko ibilaldiarekin batera. Baina hau gogorregia omen zen. Jendea kexatu egin zenez, antolatzeari utzi omen zioten».

Aralarko martxa hori burutik



Oargi Elkarteak kideak orain arteko hainbat kartel eskuan dituztela. ASIER IMAZ

kendu ezinik zebilenez, Oargiko kide gazte hau antolatzaileekin jarri zen harremanetan, hain zuzen ere, Aralarko Adiskideen orduko lehendakariarekin, Imanol Ormazabalekin. «Idatzi bat pasako zidala esan zidan berak eta 1968an eskutitz bat bidali zidan. Bertan, arautegia, aholkuak eta Amezketan hasi eta bukatzen zen ibilbide baten inguruko informazioa agertzen zen».

Aralarko gailurretako martxa berrekiteko, Oargi honako aholkuak ematen zizkion Ormazabal: «Irteera guardetxetik egin; 10-11 orduko iraupena gutxi gora behera; altuerak 1.700 metro inguru;

Aralarko gailurretako martxaren irteera Amezketan jartzea ez da inolaz ere gomendagarria, gehiegizko desnibela litzatekeelako...». Oargiko kideak gutuna jaso eta irakurri zuenean bere buruari «ez eta ez» esan zion. «Amezketatik zergatik ez?». Berarentzat «posible» zenez, inguruko bideak ikertzen hasi zen. «Artubira doan bide hori, orduan ez nuen ezagutzen. Horregatik lehen aldiz antolatu genuenean, minatatik barrena sartu genuen martxa».

Lehen Ibilaldia 1985. urtean antolatu zuten «proba bezala». Hasieran 10 tontor eta 12 orduko mendi martxa zen baina jendeak

azkarrago amaitu zuen. Ibilbidea Aralar inguruez gozatzeko prestatu zuten: «arkuak, trikuharriak, belardiak... ikusteko eta gozatzeko prestatu genuen Ibilaldia; Aralarko kultura ezagutzeko asmoz eta jendea estimulatu nahian».

Probaren arrakasta ikusita, hurrengo urtean, 1986an, I. Txirrita Mendi Ibilaldia antolatzea erabaki zuen Oargik. Bernardo Bidaola Atxega, Txirrita, elkarteak kide erailaren izena hartu zuen martxa. Ibilbideari bi tontor gehitzea ere orduan erabaki zuten: Truturre eta Ganbo Txiki. Urte horretan 319 mendizale irten ziren Amezketatik.

Mendi guztiak bezala, behe lainoasartzen denean Aralar arrisku-tsu bilakatzen da. Bidea ongi markatzen saiatzen baldin baziren ere, bada ezpada, mapa batekin bidaltzen zituzten partaideak, ipar orratza alboan izan ezkeroko galbiderik izan ez zezaten. Ondoren GPSa etorri zen eta egun, www.oargi.org helbidean, GPSrako Ibilbidea jaitxi daiteke.

Larunbatean Aralarra

Oargi Elkarteak kideek asteberu gogorra dute aurretik. VII. Txirrita Mendi Ibilaldia erabat prest utzi behar dute iganderako. Horregatik, larunbatean, hiru talde Aralar aldera joango dira, bidegurutzetuztietan norabideak ongi markatzea. Lehen edizio haietan pertsona bakarrak egiten zuten hori: «15:00ak arte tallerrean aritzen nintzen lanean eta gero Aralarra joaten nintzen bidea markatzera. Urte batean, Ordizian kazkabarrrak izugarriko kalteak sortu zituenean, niri Aralarren harrapatu zidan. Bi bandera falta zitzaizkidan jartzeko, gogoratzen naiz. Orduan, laino beltz bat ikusi nuen gerturatzen. Banderak bota eta korrika hasi nintzen Igaratza aldera. Bi zentimetroko harria bota zuen eta Tolosara iristean, harro, lagunei esaten hasi nintzen. Aralar erabat zuritu duela kazkabarrrak eta abar. Orduan batek, hozkailutik pilotabaten tamainako harria erakutsi zidan».

Igande honetan ez dirudi kazkabarra egingo duenik. Alderantziz, eguraldi bikaina aurreikusten da. «Ibilbide gogor baino *humano*» hau egiteko, ongi prestatu egoteaz gain, ura eta antzekoak ematea beharrezkoa izango da beraz. Jadanik 300 lagunek zirtatu dute euren presentzia Amezketako irteera puntuan, 06:00etan.

Aralarrek Tecnalía Tolosaldera ekartzea eskatuko du mozio bidez

ERREDAKZIOA

Aralarrek mozioa aurkeztuko du Tolosako Udalean, ordezkaritza duten alderdiei Tecnalía udalerrira edo eskualdera ekartzeko ahalegina egin dezaten eskatzeko. Helburu hau plazaratzeko, Iñaki Irazabalbeitia Tolosaldeko Aralarreko arduradunak prentsaurrekoa eskaini zuen atzo Tolosan, Rebeka Ubera Gipuzkoako batzarkidea, Txepe Agirrezabala eta Laida Elizegi Tolosako aralar kideak ondoan zituela.

Irazabalbeitiak azaldu duenez, Tolosaldeko egoera ekonomikoa ez da onena: «Datu ekonomikoek hori erakusten dute. Krisiaren ondorioz Tolosaldeko langabezia % 58a igo da 2008ko urritik hona». Beste zenbait datu ere eskaini ditu: «apirilaren 30ean 2.541 langabetu zeuden Tolosaldean, biztanleria

aktiboaren % 12,3a; langabe gehienak, 25-44 urte bitartekoak dira % 49; baina kezkarria da 45 urte-tik gorakoen proportzio handia da, % 42 iraupen luze langabetu bihurtzeko arrisku bizian baitaude». Tolosaldean 30 enpresa baino gehiago omen daude erregulazioan, hau da, 600 langile inguru.

Irazabalbeitiak salatu duenez, eskualdean ez dago jada ez enpresa traktoretik ezta sektore traktorerik ere. Aralarren ustez Tolosaldeko industria desagertzen utzi da eta ez dago politika industrialik. «Hori bultzatzeko ardura duten erakundeek, bereziki Tolosako Udalak, utzikieriaz jokatu dute». Tolosa eta Tolosaldeko iazera industrial indartzeko bultzatu diren politika ekimenak ez dira eraginkorrak izan Irazabalbeitiaren ustez.

Aralarko kidearen esanetan «politika eraginkorrak bultzatu behar dira, eskualdearen iazera eta ehun industrial sendotzeko eta ongizate ekonomikoaren ardatza izan dadin. Eskualdean traktore-lana egin eta gainerako enpresetik tiratuko duen enpresak edo sektoreak erakarri behar dira».

Aralarren ustez balio erantsi handiko industria erakarri behar da Tolosaldera, I+G alorrean inbertsio handiak egiten dituen eta beste batzuen isplu izan daitekeena. «Orain horrelako aukera baten aurrean egon gaitezke. Tecnalía korporazioa bere egoitza nagusia non izan erabakitzen ari da. Egoitza Gipuzkoan izatea erabaki lezake. Tolosa eta Tolosaldea Tecnalía bere egoitza nagusia jar dezan toki egokia izan daitezke», esan du Irazabalbeitiak.

Harpidedun egiten bazara aisialdirako bonu bat opari

Eroski Bidaia eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.



Hotel bateko egonaldi bat, 2 lagunentzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARRERANETARAKO

943-30 43 45 • harpidedun@berria.info

Uztailaren 15ean

Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIaren harpidedunen artean. Eroski Bidaia-ek eskutik.

Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.

EROSKI BIDAIA

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

Biatloi Herrikoia igandean

Zizurkil » Zizurkilgo XII. Biatloi Herrikoian herriko haurrak bilduko dira, bizikletan eta korrikan egiteko.

ERREDAKZIOA

XII. Biatloi Herrikoirako dena prest dago. Zizurkilgo eskoletako ikasleek igandean dute hitzordua, Zizurkilgo goiko plazan. Parte hartu behar duten gazteek 09:45tan aurkeztu beharko dute bertan. Taldeak prestatu ostean, 10:00etan emango zaio hasiera Biatloiarri.

12 urte bitarteko neska mutilak izango dute parte hartzeko aukera. Ikastetxeetan banatu dira, izen emate orriak. Pasa den urtean, 50 gaztetok hartu zuten parte eta «aurten ere beste hainbeste izatea espero» dutela aipatu dute antola-



Zizurkilgo goiko eta beheko ikasleek parte hartuko dute Biatloian. HITZA

tzaileek. Eguraldia ere alde dutela eta baikor azaldu dira.

Parte hartzaile bakoitzak bere bizikleta eraman beharko du. Kasakoa janzea ere derrigorrezkoa izango da. Gero korrika egingo

dute, eliza eta plaza inguruan. Amaieran, hamaiketako egingo da gurasoekin eta Biatloian parte hartu dutenekin. Guztiak izango dira irabazle, kamiseta bat emango baitaie denek.

Eskola Txikien festa girotzeko ekitaldiak

Altzo » Larunbatean, Eskola Txikien festa girotzeko ekitaldi ugari antolatu dituzte Herri Eskolakok.

ERREDAKZIOA

Eskola Txikien festarako hilabete baino gutxiago geratzen zaio Altzoko Eskolari. Festa handiaren aurretik, Altzoko Eskolak festa giroan murgildu nahi izan du.

Ekitaldi ugari antolatu dituzte Herri Eskolakok larunbaterako, maiatzaren 22rako. Arratsaldeko zazpietan hasiko da Girozte Festa herriko plazan.

Maixa Lizarribarrek irekiko du festa, sarrerako hitzekin. Ondoren Loatzok musika eta kantu emanal-

dia eskainiko du. Gurasoak eta ikasleak, modelo bihurtuko dira. Salmenta produktuen desfilea egingo baitute. Kamisetak eta kirol jertseak soinean, gizona, emakumezko eta haurrentzako salgai izango diren produktuak erakutsiko dituzte.

Desfilea eta gero, Artea-Alur dantza taldeak emanaldi laburra eskainiko du. Ondoren, Altzoko gazteek prestatu duten *Altzoko Handia-Imaz Bertsolaria* ikuskizunaren aurkezpena egingo da.

Amaieran, Eskola Txikien festarako prestatu duten kantuaren aurkezpena egingo dute ikasle, guraso eta irakasleek.

Ordubeteko iraupena izango duen Girozte Festak, ekainaren 13ko festa handiari emango dio lekukotza.

Paletako Gipuzkoako finalean eskualdeko neska mutilak

ERREDAKZIOA

Alegiako San Juan ikastetxeko eta Aralar institutuko ikasleak Gipuzkoako Paletako finaletar iritsi dira. Aiako frontoian jokatu dituzte, kadete, alebin eta infantil mailako finaleko partidak, maiatzaren 22an, larunbatean.

Alebinen maila, hiru alegiarrek osatzen dute; Inaki Arandia, Inigo Otamendi eta Julen Oiarbidek. Hauek, Zarauzko Antonianoen

aurka jokatu dute. Infantil mailan, Aralar institutuaren izenean Maite Gailurralde amezketarrak eta Maialen Senperena abaltzisketarrak jokatu dute, Hernaniko Langile ikastolaren aurka. Partidak arratsaldeko lau etan hasiko dira.

Alegian jokatu behar diren partidei dagokienez, kadeteek ostiralean jokatu dute buruz burukoan lau t'erdian. Intxurreko Na-

zabalek, Diez bergararra izango du aurkari. Irastorzak berriz, Aurrea-Saiazeko Garaikoetxea.

Talentedunen txapelketari dagokionean, larunbatean emango zaio bukaera. Arratsaldeko lauretan, Irazustabarrena alegiarrak, Moron arrasateararen aurka jokatu du. Bietako inork oraindik ez du partidarik galdu. Partidako irabazlea beraz, zuzenean joango da finalerdietara.

Laburrak

Euskal Festa Joxe Mari Mendizabalen oroimenez

ANOETA » Maiatzaren 22an, larunbatean, Euskal Festa egingo da Anoetako Bodegon Benta Aldean, Joxe Mari Mendizabal zenaren oroimenez. Eguerdiko hamabietan, Joakin Garmendia, Alberto, Olasagasti eta bere koادرilak aizkora erakustaldia eskainiko dute. Ondoren, sokatira norgehiagoka, Joakin Garmendia eta Fermin Benta Aldekoaren taldearen artean. Amaizteko bazkaria egingo da Bodegon Benta aldean bertan.

Bi pertsona atxilotu dituzte lapurretatik

ALEGIA » Bi pertsona atxilotu zituen atzo Ertzaintzak autokarabana baten lapurretan ari zirela. Eguerdialdera Ertzaintzak deia jaso zuen, ustez autokarabana batean lapurretan ari zirela esanez. Larraitz kalear aparkatuta zegoen autokarabana iristean, leihoa apurtuta zegoela ohartu ziren eta barruan 19-20 urteko gizon-emakumeak aurkitu zituzten gordeta. Ertzaintzaren arabera, atxilotuek aurrekari penalak dituzte.

Eraman soinean...

Helduen elastikoak **15 €**

Neska: ZURIA, BELTZA, MARROIA

Mutilak: BERDEA

NEURRIAK: Neska: S, M, L, XL, XXL. Mutilak: S, M, L, XL, XXL. Haurrak: 3-4, 5-6, 7-8, 9-11

HAURREN elastikoak **12 €**

LABANIA, BERDEA

mantangorri



Legebiltzarkideak Larraulgo eskolan

LARRAUL » «Eskola propioa izateko» Larraulgo Udalak Jaurilaritzari egindako eskaria dela eta etorri dira Legebiltzarkideak, herria bertatik-bertara ezagutzera. PSE-EEko ordezkariak ez da izan bisitan. Legebiltzarkideak, Xabi Mujika Alkaterekin, Karlos

Iraza zinegotziarekin eta Guraso Elkartearekin bildu dira. Eskolako azpiegiturak ikusi dituzte eta «kalitatezko azpiegitura» dagoela nabarmendu dute. Larraul, eskola propiorik ez duen Gipuzkoako herri bakarra da. HITZA

Gozatu uda berriaz

Noiz eta nola egin eskaria?

Maiazaren 28ra arte aukera izango duzu.

1. TELEFONAZ: 943-30 43 45
2. WEBGUNEAN: www.berria.info
3. POSTAZ: harpidetza@berria.info

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**



140 lagun uraren inguruan

TOLOSA • 140 pertsona inguru bildu ziren atzo goizean Musika Eskolan uraren inguruan hitz egiteko Eskolako Agenda 21 programaren II. Topaketetan. Ikasle, irakasle zein gurasoek ikasturtean landutakoa eta udal ordezkariak agertutakoa berriz ere landu zuten informazioa elkartrukatu. Ondorioak udalaz gaineko erakundeei bidaliko dizkiete. A. IMAZ

Klarineteko ikasleen kontzertua, bihar

ERREDAKZIOA

Tolosako Eduardo Mokoroa Musika Eskolako klarinete ikasleek ikasturte amaierako kontzertua eskainiko dute bihar, ostirala, 19:30etik aurrera Eskolan bertan.

Ikasle guztiek hartuko dute parte kontzertuan, 8 eta 9 urtekoak direlarik gazteenak.

Johann Stamitzen klarineterako kontzertua joko dute Sakanako bandako Luis Orduñazuzendariaren agindupean.

Tolosako hiru gazte, gainera, bakarlari moduan ariko dira, Mirari Martin, Iñigo Irurzun eta Jon Alonso, hain zuzen.

Biharko kontzertua, dena den, ez da lehena izango, izan era Zumaian eta Altsasun eskaini dituzte jada emanaldiak.

Musika Eskolako arduradunek herritar guztiak gonbidatzen dituzte ikasleen kontzertua ikustera.

'Zutik, Euskal Herriaren' aurkezpena Topic-en

ERREDAKZIOA

Gaur 19:30etik aurrera Tolosako Topic zentroan, *Zutik Tolosa, Zutik Euskal Herria!* gaitzat hartuta hitzaldia emango du ezker aber-tzaleak.

«Euskal Herrian aldaketa politikoa eta soziala emateko prozesu demokratikoa eman behar da, eta hori nola bideratu behar den azaltzeko izango da hitzaldia», azaldu dute antolatzaileek.

L Laburrak

IKT aholkularitza zerbitzu berria KZgunean

INFORMATIKA • Eusko Jaurlaritzak aste honetan KZgunea Saretik eskaintzen den IKT-ekin erlazioanaturiko zerbitzu berri bat abian jarri du. Bere lehenengo fasean, zerbitzu hau erabilgarri dago Tolosako KZgunean. Lehenengo fase honetako helburua, zerbitzu honekiko herritarren beharrei buruzko informazioa biltzea da. IKT adituek, diagnosi zerbitzua, oinarriko esku-hartzea eta ordenagailuen eta periferikoaren erosketak eta konfiguraziorako aholkularitza zerbitzu bat eskaintzen dute.

UGTk metalgintzak mobilizazioak egingo ditu

EKONOMIA • UGTk mobilizazioak egingo ditu Gipuzkoako metalgintzako hitzarmeneko negoziaketan «aurrera pausorik eman ez» dela salatzen. Sindikatuaren aburuz, Adegri patronalak ia ez du esfortzurik egin blokeo egoerarekin amaitzeko. Hala ere, datorren bileran izango dela iragarri du.

Zuzenketa. Maiatzaren 18ko egunkarian Alegian Intxurren azolana egin zutela argitaratu zuten, baina Langaurren egin zuten. Barkatu eragozpenak.

Gatikoaetxea Familia
ZURE FAMILIA EDONOLAKOA DELA ERE

0€

euskaltel
zuretzat

FAMILIA PLANA
ZUEN FAMILIAKO TELEFONOEN ARTEKO DEI GUZTIAK

MINUTURO **0** zentimoren truke

Finkoa ► Mugikorra / Mugikorra ► Mugikorra / Mugikorra ► Finkoa

zuntzOptikoa Deitu 1717 telefono-zenbakira
www.euskaltel.com

Guztizko ondorio erabiltzeko mugikorra duen duten ZuntzOptikoa-ekin. Hainbat erabilera berriztatzen ditu Familia Plana. ZuntzOptikoa gurekin kontu berritu gero, behar duzun Euskaltel-ekin hitzatu behar duzu. 15 zentim. 30 segunduko erabilera mugikorra berriztatzen du. ZuntzOptikoa-ekin hitzatu behar duzu. Mugikorraren PSNak, 24 orduko berriztatze zerbitzua. Mugikorra 100 pko.

Alurreko Aimar Odriozolak irabazi du Aurreku Lehiaketa

Ibarra » Estreinakoz hiru ibartar gaztetxok hartu dute parte lehiaketan, eta horietako bat garaile izan da Oreretako finalean.

ERREDAKZIOA

Aimar Odriozola, Alurr dantza taldeko gaztetxoak irabazi du Aurreku Txapelketa. Larunbatean Oreretako Erreterria Hiria Kulturunean jokatu zen finala eta giro ederra egon zen, goraino bete baitzuten aretoa. Lau sailetan banatuta, bakoitzean hamabina dantzarik hartu zuten parte. Horieta-kobatean, B mailan (11 eta 7 urtebitartekoak) hain zuzen ere, bi ibartar aritu ziren, Aimar Odriozola eta Aitor Maiza, lehendabizikoa izan zelarik garaile.

Ibarrako hiru gaztetxok hartu dute parte estreinakoz lehiaketa honetan, eta horietatik bi finalera iritsi dira. Alurrekoen hitzetan, hau harro egoteko lorpena da, «beti nesken dantza talde bat bezala ezagutu da gurea, baina orain,



Alurr dantza taldeko Aimar Odriozola eta Aitor Maiza, Oreretan. HITZA

erakutsi ahal izan dugu mutilek ere protagonismoa badutela, baita dantzan aritzeko aukera ere». Horren adibide dira hiru gaztetxo hauek, txikitatik izan baitute dantzarekin harremana.

Iñaki Agirre izan dute irakasle hiru gaztetxo hauek azken urtean. Honela, dantzaria oso gustura

agertu zen bere ikasleek egindako lanarekin. Bere hitzetan, «finalean maila oso altua zen, eta bi ibartarrek oso ongi dantzatu zuten». Honekin, Alurr dantza taldekoek, inguruko mutikoak dantza egitera animatu nahi dituzte, «erakutsiz, beraiantzat ere tokia badagoela dantzaren munduan».

Zaldi lasterketarekin etzi hasiko dira Izaskun auzoko jaiak

Ibarra » Larunbatetik astelehenera bitartean ospatuko dituzte jaiak; 18:30ean hasiko da zaldunen arteko lehia.

ERREDAKZIOA

Bi egun besterik ez dira falta Ibarako Izaskun auzoko jaietarako. Etzi hasiko dira eta astelehenera arte luzatu. Honenbestez Izaskungo Festa Batzordeak antolatuta, izango da zer eginik inguru hauetan.

Iaz bezala, Zaldi lasterketarekin ekingo diete jaiak. Hau etzi izango da 18:30ean, baina 17:00ak alderako hasiko da mugimendua, zaldunen prestaketak direla eta. Bestalde, aparkalekuak ere egokituko dituzte, gerturatzeko arazorik ez izateko. Zaldunak Izaskungo elizaren behealdeko belazean ibiliko dira lasterlean.

Finaleko lehen hiruek saria jasoko dute; 300 euro eta garaikurrak lehenak, 240 euro eta Joseba Barriola harategiko bi oilasko bigarrenak; eta 180 euro hirugarrenak. Oraingo honetan, azken sailkatuarentzat ere izango da saria, honek, zaku bat baba etxeratuko baitu.

Lasterketa eta gero, bertsoak

Etzi, egunari amaiera emateko, Bertso afaria izango da Izaskun jaietxean, bi beteranorekin, Grego-

rio Larrañaga *Mañukortarekin* eta Xabier Zeberioarekin.

Hurrengo egunean, igandean, 12:00etan idi probak izango dira. J. M. Olasagastiren eta Mikel Garmentariaren idiak ariko dira elkarren aurka. Jarraian, 14:30 aldera, herri bazkaria izango da. Bazkaloatea, Andoni Egaña zarauztarrak eta Iker Zubeldia zegamarrak alaituko dute, bertsoetarako duten abilezia eta umorea erakutsiz.

Arratsaldean, hauguztien artean erakartzen duen Gorriti izango da Izaskunen, bere animaliekin batera. Nafarraren emanaldia 18:00etan hasiko da. Honen ondotik, pintxo eta sagardo dastaketa izango da. Adunako Zabala eta Aburuza; Andoingo Gaztañaga; Asteasuko Sarasola eta Intsaluskoa edan ahal izango dira. Ekitaldiari doinua herriko trikitilariak jarriko diote.

Astelehena, azken eguna

Etzi hasitakoari astelehenean emango diote amaiera. 10:00etan, diana izango da herriko trikitilarietara. Ordu bat beranduago, Meza eta hau amaitzean, hamaiketako. Eguerdian, 13:00 aldera, festetako bigarren bertso saioa izango da Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikanoren eskutik. Arratsaldean 17:00ak aldera, Alurr dantza taldekoen emanaldia izango da, eta haurrentzako gozokiak ere bai. Erromeriarekin esango diete agur, jaiak.



Birziklatzearen sekretuak ezagutz

ARESO » Birziklapen tailerra egin zuten atzo arratsaldean Areson. 14:45 aldera atera ziren herritik 20 lagun inguru eta Areson barrena bildutako zaborrak sailkatu zituzten. Ondoren, haurrei azaldu zieten, adibideak jarri, bakoitzarekin zer lortu zitekeen. Gainera, plasti-

koaren kasuan bere prozesua erakusten zuen materiala lortu zuten Leitzatik. Amaitzeko zabor bakoitza bere eduki-ontzira bota zuten. Haurrak gustura ibili ziren eskularrekin eta adi jarraitu zituzten azalpenak. Pastak eta patatak janez amaitu zuten ekimena. HITZA

Laburrak

Odola emateko aukera izango da hilaren 26an

BERASTEGI » Berastegiko Odol Emateko elkarteak deialdia luzatzen du datorren asteazkenerako, hau da, hilaren 26rako. Egun horretan, herriko eskolan, 18:30etik aurrera odola emateko aukera izango da. Hori dela eta, herritar guztiak gonbidatzen dituzte hitzordu horretara.

Jai Batzordearen bilera, datorren ostegunean

IBARRA » Udal Kultura eta Gazteria Batzordeak San Bartolome jaien antolatetari ekin asmoz, bilera deitu du datorren ostegunerako, hau da, hilaren 27rako. Hau 20:00etan izango da Udal Pleno Aretoa. Honenbestez, herritar guztiak dei egiten die bilkuran parte hartzeko.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta **Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Kulturaren astea da honakoa, ez bairik gabe

Kultura » Irura, Lizartza eta Berrobin duela egun batzuk murgildu ziren eta Leitzan, igandean hasiko dira; atzo haurrak izan ziren protagonista.

ERREDAKZIOA

Herri batzuetan, Kultur Asteek aurrera jarraitzen duten bitartean, beste batzuetan hastear dira. Irura, Berrobi eta Lizartzan, jada egun batzuk igaro dira, ekitaldiei ekin zietenetik, eta Leitzakoetarako hiru egun besterik ez dira falta.

Iruran atzo iluntzean, Loatzo musika eskolako ikasleek emanaldia eskaini zuten. Ikasturtean zehar egindako lana jendaurrean erakutsi zuten plazan emandako kontzertuan. Trikitixa doinuak, akordeoiarenak... entzun ahal izan ziren. Haurrek, familiakoek eta lagunek gustura egin zuten txalo, kantuak entzutean.

Gaur goizean goiz, Iratxeko monastegira abiatuko dira herriko ju-

bilatuak. Bestetik, Sointek produktioaren Musika trenen fabrika lana ikusteko aukera izango da Irurako plazan. Azkenik, gaurko ekitaldiei amaiera emateko, aurreko egunetan bezala, Risoterapia ikastaroa izango da kulturunean.

Berrobin, sukaldaritza ikastaroa gaur

Berrobin ere haurrak izan ziren protagonista atzo arratsaldean. Izan ere, Xurdirin ipotx urdinaren kontzertuaz gozatzeko aukera izan zuten arratsaldean, Berrobi-ko umeek. Pertsonaia berezi eta maitagarri honek txaranga handi bat osatzea lortu zuten, Berrobiko haurrak musikari zirela.

Gaur berriz, Kultur Asteko biga-

rren sukaldaritza erakustaldia izango da. Irakasle lanetan, herriko sukaldari ezagunena ariko da berriz, Iriarte jatetxeko Felix Belauzarran hain zuzen ere. Gainera, gurasoek ekitaldia galdu ez dezaten, haurtzaindegi zerbitzua egongo da ekitaldiak irauten duen bitartean. Amaitezko, eta batzuek behintzat afaria prestatzen lanik izan ez dezaten, prestatutako kutxiak zozketatu egingo dituzte parte-hartzaileen artean.

Iristear da Leitzako Kultur Astea

Igandean hasiko da Leitzako Kultur Astea. Lehendabiziko eguna garrantzitsua izango da gainera, izan diren, dauden, falta diren eta izango diren kirolari guztiei omenaldia egingo baita Leitzako Udalak herritar guztien partetik. 12:30ean hasiko da ekitaldia eta Lopeneko oroitarriaren ondoan izango da, hau beraie eskainiz.

Lehen aldiz, Dantzari Txiki Eguna, Lizartzan

Aisia » Etzi, 150 gaztetxo ariko dira herriatik barrena dantzari; arratsaldean berriz, herrikoen arteko herri kirolak izango dira.

ERREDAKZIOA

Lizartzan, estreinakoz, Dantzari Txiki Eguna ospatuko dute. Hau etzi izango da, eta eskualdeko 150 haurrek hartuko dute parte ekimenean. Horietatik 36 «etxekoak» izango dira. Urte asko daramatzate Otxolar dantza taldekoek, beste herrietan ospatzen diren jaialdientan parte hartzen, hori dela eta, aurretik, Lizartzan bertan Dantzari Txiki Eguna ospatzea erabaki dute.

Goizean, 10:30ean aldera elkartuko dira Ibarra, Villabona, Hernialde, Tolosa, Anoeta, Alegia eta Lizartzako dantzari txikiak. Jarraian bi taldeetan banatuko dira eta herriatik barrena bide ezberdina

egingo dute kalejiran. Tartean, geldialdiak egingo dituzte eta emanaldiak eskaini. Ibilbidea amaitzean, denak pilotalekuaren alboan elkartzeko dira eta hamaiketako egiteko aprobetxatuko dute.

Mokadutxoan jan ostean, talde bakoitzak bere emanalditxo eskainiko du. Azkenik, denek elkarrekin, fandango eta arin-arin bat dantzatzu amaituko dute. Honela, 13:30ak aldera emango diote amaiera jai egunari.

Dantzari kirolarietako hartuko diete erreleboa

Dantzariaren doinuak isildu ostean, herri kirolenak hasiko dira. Etzi 18:00etan Lizartzako koadrilen arteko herri kirol saioa izango da. Lehendabiziko aldiz, herritarren arteko izango da desafioa, iaz esaterako, Gaztelukoan aurka egin baitzuten. Txingekin, koxkolak biltzen, trontzan, harria jasotzen, zakuak eramaten eta beste ariko dira herriko kirolariak.

» LEITZAKO KULTUR ASTEA

Maiatzak 23, igandea

■ **12:30.** Udalak antolatuta, herriko kirolarietako omenaldia eta kirol saioa egingo da.

Maiatzak 24, astelehena

■ **20:00.** *El escandalo monumental* liburua aurkeztuko dute Aurrera elkarteak.

Maiatzak 25, asteartea

■ **20:00.** *Argiak eta itzalak euskarren lurraldean. Euskararen etxean, gazi-gozo*, Dabid Anauten lan sarituaren aurkezpena, Aurrera elkarteak.

Maiatzak 26, asteazkena

■ **20:00.** *Ximeneiak*, Goizeder Ur-tasunek egindako langileen mugimenduari buruzko dokumentala ikusgai izango da Zineman.

Maiatzak 27, osteguna

■ **20:00.** *Ama Dablam 09*, espedizioaren nondik norakoak, Juan Maritorenaren eskutik, Zineman.

Maiatzak 28, ostirala

■ **17:00.** Haurrentzako joko-jostetak Aldaia Argandoñaren eskutik, herriko plazan.

■ **20:30.** Iraganari begira, etorkizuna irabazteko, Euskal Memoria fundazioaren aurkezpena, Joxean Agirre idazlearen eskutik. Aurrera

elkartean. Ostiraletako elkarretaratzearen ondoren.

■ **23:00.** Okasientes taldearen kontzertua Peritzan.

Maiatzak 29, larunbata

■ **14:00.** IKAK antolatutako festa, XX. urteurrena ospatzeko. Kantu bazkaria, ingurutxo eta bertso saioa izango dira.

■ **00:00.** Gazte Asanbladak antolatutako kontzertuak Atekabel-tzen, Errugabe, Sutan eta Fiemto taldeekin.

Maiatzak 30, igandea

■ **09:00.** Gaiteroen eskutik, diana, plazatik abiatuta, eta herriatik barrena.

■ **11:00.** XXXII. Artisau azoka ospatuko da herriko plazan.

Maiatzak 31, astelehena

■ **19:00.** *Teknologia berriak, gizartean* hitzaldia Patxi Gaztelumendiaren eskutik, Liburutegian.

Ekainak 1, asteartea

■ **20:00.** Josu Iztuetak hitzaldia eskainiko du *Euskaldunak Ameriketan* izenburupean, Aurrera elkarteak.

Ekainak 2, asteazkena

■ **20:00.** *1512 Nafarroaren konkista* dokumentalaren aurkezpena eta

solasaldia. Angel Rekalde izango da hizlari, Aurrera elkarteak.

Ekainak 3, osteguna

■ **20:00.** *Euskal mitologia; jentilak, lamiak eta orantzaroo* hitzaldia, Amuntxi Aranaren eskutik. Aurrera elkarteak izango da hau.

Ekainak 4, ostirala

■ **20:00.** Pagoen mugarraketa zergatia eta historia azalduko dute Trepalariek. Hitzekaldia Aurrera elkarteak izango da.

■ **00:00.** Makulu Ken taldearen afro-musika kontzertua eta ondoreni DJa, Torrean.

Ekainak 5, larunbata

■ **18:00.** Musun Bordaren aldeko festa: Euskal Herria kantari. Herriko plazan izango da jaialdia.

Ekainak 6, igandea

■ **19:00.** Organo emanaldia izango da elizan.

Ekainak 11, ostirala

■ **20:00.** *Sagarra eta sagastia* hitzaldia eskainiko du Jakoba Re-kondok. Aurrera elkarteak izango da hizketaldia.

Ekainak 12, larunbata

■ **19:00.** Bigarren Sagardo Eguna ospatuko dute herriko plazan.



Berrobiko eskolan, Xurdirin ipotxaren bisita jaso zuten atzo arratsaldean. E. E.



Loatzo musika eskolakoek emanaldia eskaini zuten atzo iluntzean. E. EZEIZA

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliagabatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

Beti alai
jatetxea

Garaian garaiko janariak
Arraikieta berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Zorionak!

"Ya no kedan más kojones Basakana a las elecciones"... mila muxu ta eutsi goiari!

A Agenda

Aisialdia

■ **Bedaio.** Harri Jai eguna 11:00etatik aurrera.

Bertsolaritza

■ **Zizurkil.** Bertsok kantari: 15:15ean Intxaur frontoian herriko hiru ikastetxeetako ikasleek Pello Mari Otañoren bertsok kantatuko dituzte ipuin kontalariaren laguntzarekin.

Zinema

■ **Tolosa.** *Ajami* filma Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.
■ **Lizartza.** Josu Bereziartuaren *Familiarekin Himalaiara* filma proiektatuko dute 20:00etan.

Ikastaroa

■ **Berrobi.** 18:30etan Iriarte jate-txeko Felix Belauntzararen ikastaroa Bide ona elkartean.

Elkarretaratzea

■ **Tolosa.** Borroka armatuaren hasieraren eguna dela eta, elkarretaratzea Plaza Zaharrean 20:00etan.

Deialdia

■ **Tolosa.** *Zutik Tolosa, Zutik Euskal Herria* Topic-en 19:30ean.

■ **Tolosaldea.** Loatzo Musika eskolako matrikulazioa bihar amaituko da. Bihar 16:30etik 18:00etara herri guztietako eskoletan egin ahal izango da 4 urtetik gorako umeen matrikulatzea.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AROTZERI ETA ALTZARI FABRIKAZIO ikasketak



AURREMATRIKULAZIOA MAIATZAREN 31 TIK EKAINAREN 1 TRA

Zatuz ezagutzera (instalazioak, makineria, laborategia...)
ATE IREKIAK:

- Maiatza 27 osteguna arratsaldeko 6:00 tatik aurrera
- Maiatza 29 larunbata goizeko 10:00 tatik aurrera
- Beste egun batean nahi izanez gero deitu arrez

UROLA LANBIDE HEZIKETA INSTITUTUA
Altamira auzoa z/g 20720 AZKOITIA
Tel. 943 852174/943 851507

P Publiereportaia

Errenta aitorpena euskaraz, zergatik ez?

Tolosa » Tolosako Udalak errenta aitorpena euskaraz egitera gonbidatzen ditu herritar guztiak.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udalak konpromiso sendoa du euskararekin hainbat alorretan: administrazioaren jardunean, merkataritzan, eskalduntze-alfabetatzean, enpresa munduan, euskarazko hedabideetan...

2010ean beste urrats bat eman nahi du euskararen alde: herritarrek errenta aitorpena euskaraz egitea sustatu nahi du.

Izan ere, zorritzarrez, oraindik eskaldun asko dago errenta aitorpena euskaraz egitera ausartzen ez dena, nahiz eta oso erraza izan.

Tolosako Udalak errenta aitorpena euskaraz egiten duten eskaldunen kopurua handitzeko erronkari heldu nahi dio.

Hona hemen errenta aitorpena euskaraz egiteko aukera batzuk:

■ **Mekanizatua** egiten baduzu, hitzordua eskatu behar duzu lehendabizi, telefonoz edo internet bidez (www.gipuzkoa.net). Eskara egitean, euskaraz nahi duzula adieraz dezakezu.

Foru Aldundiak **autolikidazio** proposamena etxera bidaltzen baduzu eta proposamenarekin ados bazaude, telefonoz edo internet bidez onartu behar duzu. Berrestekoan, euskaraz nahi duzula adieraz dezakezu.

■ **Internet bidez** egiten baduzu, www.gipuzkoa.net webguneko laguntza programa erabili behar duzu. Hor ere euskaraz nahi duzula adieraz dezakezu.

■ **Aitorpena beste batek (aurrezki kutxa, banketxeak, gestoria...)** egiten baduzu, aitorpena euskaraz egin nahi duzula adieraz dezakezu.

Ikusten duzunez, erraza eta sinplea da, EGIZU DEKLARAZIOA EUSKARAZ!

EGIZU DEKLARAZIOA EUSKARAZ!

Egiteko modu guztiak errenta aitorpena euskaraz egiteko baliabideak dira.

Internetaz egiteko, www.gipuzkoa.net webgunera jo behar duzu, eta beran...

Mekanizatua: lehendabizi hitzordua eskatu behar duzu telefonoz edo internet bidez. Eskara egiteko.

Aldundia etxera bidali duzun autolikidazio proposamena berresteko, telefonoz edo internetaz.

Aitorpena beste batek edo beste batek egiten baduzu...

EUSKARAZ NAHI DUZULA ADIERAZ DEZAKEZU